

landeia

ALDIZKARI SINDIKALA - REVISTA SINDICAL
ABUZTUA/IRAILA 2008 AGOSTO/SEPTIEMBRE. Nº 150 ZENB.

ELA
EUSKAL SINDIKATUA



**NUESTROS SALARIOS NO SON
LOS CULPABLES DE LA "CRISIS"**

3
EDITORIALA
EDITORIAL
Europa bahitua

4
HITZA HITZ
CON NOMBRE
PROPIO
"El sindicalismo
tiene futuro
si es de
confrontación"

6
HITZA HITZ
CON NOMBRE
PROPIO
Lizarrar-Garazi:
10 urte

12
PULSO
SINDICAL
BERTATIK
XII Cogreso: Adolfo
Muñoz, Txiki,
candidato a la
secretaría general.
Resumen ponencia.

22
LEGEAREN
BUELTAK PAGINAS
JURIDICAS
Ekoizpen sistema
eta enpresaren
erantzukizuna

24
KRONIKA
DE LA A A LA Z
Ni pa pipas

26
HARIRA
CON PERSPECTIVA
"Nuestros salarios no
son culpables del
menor crecimiento
económico"



18



19



20



28

ELA non

Konfederazioa

Barrainkua 13
48009 Bilbao
Tfno: 94 403 77 00

Eskualdeak

Araba

GASTEIZ
Manuel Iradier 25
Tel: 945 15 80 76

AGURAIN
Calle Fueros, 27
Tel/fax: 945 31 20 26

OION
Nafarroa etorbidea 31,
behea.
Tel: 945 622440

Bizkaia

BILBO
Barrainkua 13
Tel: 94 403 77 00

IBAIZABAL-NERBIOI

LAUDIO
Herriko Plaza 4, 1 dcha.
Tel: 94 403 65 45

BASAURI
Antonio Fernández s/n
Tel: 94 405 58 88

GALDAKAO
Muguru 8 entrepr.
Tel: 94 400 57 57

IGORRE
Agirre Lehend. 25, 1E
Tel: 94 631 54 58

EZKERRALDEA-KADAGUA

BALMASEDA
San Severino 4 bis
Tel: 94 680 17 80

BARAKALDO
Gernikako Arbola 35-38
Tel: 94 418 02 96

SANTURTZI
Maestro Calles 1, bajo
Tel: 94 493 56 59

ZALLA
Avda Hnos. Maristas s/n
Tel: 94 667 02 88

SODUPE
Gallarraga, 11
Tel: 94 669 29 01

ESKUMALDEA

AREETA
Areetako etorbidea 2
Tel: 94 602 04 50

DERIO
Txorierriko etorbidea, 9
Tel: 94 404 31 13

MUNGIA
Herri Bide 8, entrepr.
Tel: 94 674 00 16

GERNIKA-DURANGO

DURANGO
Askatasun Etorbidea 5.
Tel: 94 621 76 80

BERMEO
Aurrekoetxea 9, bajo
Tel: 94 688 05 07

GERNIKA
Urkieta 9, 1 izda.
Tel: 94 627 00 53

ONDARROA
Artabide 12, 1C
Tel: 94 683 25 15

ERMUA
Zubiaurre 36, entrepr.
Tel: 943 17 60 15

Gipuzkoa

DONOSTIA
Consulado 8, behea
Tel: 943 00 50 00

UROLA-KOSTA

AZPEITIA
Arana Goikoa 1-2-3, bajo
Tel: 943 81 34 46

ZARAUTZ
Bizkaia kalea 8
Tel: 943 00 05 28

ZUMAIA
I. Zuloaga plaza 1, 3B
Tel: 943 86 01 01

DEBA

ARRASATE
Otalora Lizentziatua, 22
Tel: 943 79 45 09

BERGARA
Ibargarai 26-30 behea
Tel: 943 76 43 01

EIBAR
Bidebarrieta 30, bajo,
primero
Tel: 943 82 04 42

ELGOIBAR
Rosario 25, 2
Tel: 943 74 42 78

MUTRIKU
Alimirante Gaztañeta, 1
Tel: 943 603238

OÑATI
Euskadi Etorbidea bajo
3-4
Tel: 943 082500

ORIA GOIERRI

BEASAIN
Juan Iturralde 9, 1
Tel.: 943 33 64 64

HERNANI
Argarain 3, behea,
Antziola Auzoa
Tel: 943 33 64 64

LASARTE
Zumaburu 5, trasera
Tel: 943 57 16 44

LEGAZPI
Aizkorri kalea 1, 1A
Tel: 943 73 18 18

TOLOSA
San Francisco Ib. 13
Tel: 943 69 83 14

URRETXU
Labeaga 33, behea
Tel: 943 036391

OARSO-BIDASOA

ERRETERIA
Pza. Koldo Mitxelena 2,
bajo
Tel: 943 00 01 13

IRUN
Paseo Colón 27, 1
Tel.: 943 63 84 70

BERA
San Esteban 13, bajo
Tel/Fax: 948 63 07 92

Nafarroa

IRUÑEA-PAMPLONA
Iturralde y Suit, s/n
(frente al 10).
Tel: 948 00 79 30

ALTSASU
La Paz 3, Entr.
Tel/Fax: 948 46 73 38

CORELLA
Urb. San Juan, 1-bajo
Tel: 948 40 10 72

LIZARRA
C/ Fray Diego 13, bajo
Tel/Fax: 948 54 67 70

PERALTA
Avda. La Paz 9-1 izda.
Tel: 948 75 10 17

SAN ADRIAN
Ctra. de Estella 32, bajo
Tel: 948 69 61 59

SANGÜESA
Mediavilla 4
Tel: 948 43 01 08

TAFALLA
Paseo Nuevo, 1
Tel/Fax: 948 70 16 60

TUDELA
Fernando Remacha 4, 1
Tel: 948 02 62 02

LODOSAS
Paseo Central s/n
Tel: 948 69 42 12

ERREDAKZIO TALDEA EQUIPO DE REDACCIÓN

Zuzendaria - Director: Patxi Agirrezabala.
Koordinatzailea - Coordinadora: Nerea Ispizua.
Idazlariak - Redactores: Gorka Quevedo, Juan Antonio Korta, Xabi Anza, Julene Gabiola, Bizente Harriola y Janire Dominguez. Itzulpen lanak: Bixen Fernandez Amezaga.
Argitarazle - Edita: ELA, Euskal Sindikatua. Barrainkua 13, Bilbao. Tfno: 944037700.
Email: landeia@elasind.org

landeia

EUROPA BAHITUA

Noren mesedetan? Zeinen zerbitzura daude egungo europar estatu gehienak? Beti uste izan ohi dugu -hala esplikatu izan zaigu, behintzat, eta modu horretan teorizatu da- egungo estatu- demokrazia formalak herritarren ongizatea bermatzeko sorturiko esparru babeslea izan duela bere xede. Beraz, herritarren interes eta beharren zerbitzura eraiki omen den arkitektura juridiko-politiko modu egokiena litzateke, bere akatsak eta guzti, helburu horiek betetzeko. Agian, beste garai bati erantzuten zion honelako usteak baina, denboraren poderioz, usteak ustel bilakatu dira ezbairik gabe.

Bigarren Mundu Gerratearen ondoren Europan gizarte eredu aurrerakoia eratzen sortu ziren erreferentzi eta kodeak bertan behera geratu dira eta oso bestelakoa da europar batasunak hartu duen norabidea, salbuespenak salbuespen. Mugimendu sozial eta politiko ezkertiarak ahuldurik, eta ordainezinezko europar epailetzaren erabakiekin, indar ekonomiko boteretsuak gailendu dira gutxieneko baldintzarik gabeko esparru ekonomiko eta politiko berrian.

Europar Konstituzioak 2004ean ezartzen ditu formalki eredu berriaren ildo nagusiak. Bertan nabarmentzekoak dira, besteak beste, estaturik gabeko nazioenganako erakusten zuen begirune eza eta, horrekin batera, herritarren ongizate soziala desarmatzeko irizpide eta neurriak. Konstituzio honi hainbat herrialdek emandako ezetzak ez du galgatu, ordea, sakoneko borondatea eta helburu horretara garatu dute 2007ko Lisboako Ituna. Demokrazia-defizita errotzen duen Itunak lehenagokoari forma aldatu dio, baina funtsa berdinari eusten dio, Angela Merkel andereak ongi asko azpimarratu duen moduan. Agintarien nahiak berriro zapuztuak izan ez zitezen, herritarren arteko erreferendumen bidea alboratu eta Legebiltzarrei eman zaie

A la Europa neoliberal que se está construyendo no le importan los problemas y preocupaciones de los ciudadanos/as de a pie

ahalmena berreste prozesuan. Bere legeak hala agindurik, Irlandan eginitako erreferendumean ezezkoa nagusitu da, ordea, eta honek prozedura birpentsatzera eraman ditu agintariak.

Zuzenki eragiten diguten gaien artean, politika atzerakoiak eta antisozialak ari dira nagusitzen modu ezberdinez. Neoliberalismoak, itxurak gordetzeko balio duen arren, ez ditu Itunak edo Konstituzioak behar. Nahikotxoa zaio botere ekonomiakorekin bat egirik, esparru politikoak gainbegirtzea eta epailetzaren laguntza paregabearekin bere neurriak eremu guztietara hedatzen joatea. Ikustagun.

Arlo sozialean, besteak beste, Bolkestein zuzentarauak *dumping* ekonomiko eta soziala garatzeko bide berriak jorratzen ditu, tartean zerbitzu publikoen pribatizazioa dagoela ere; Etorkinen Itzulera zuzentarauak beste urrats bat ematen du etorkinen oinarrizko eskubideen gainbeherako bidean eta gaizkiletzat jotzen ditu egoera ez erregularrean Europan dauden immigranteak, hemezortzi hilabetez atxilotuta egon daitezkeelarik.

Espresuki lan arloari dagokionez, aberastasunaren banaketa eta lan baldintza hobeagoak sustatu beharrean, desegituraketa ikaragarria da. Luxemburgoko Justizia Auzitegiak eman dituen hiru epaiek -Viking Line, Laval eta Ruffert izenekoak-, eta "Batzordea Luxemburgen aurka" izeneko auzi-koak oldarkor erasotzen diote sindikalismoari zerbitzu eta enpresen joan etorri librearen printzipioari lehentasuna emanez langileen eskubideen ginetik. Lanaldiari buruzko zuzentarauak asteko lanaldiaren muga 48 ordutik 65 orduraino handitu egiten du enpresari eta langile arteko akordio indibidualak bultzatuz. Ikasi beharreko *flexicurity* hitz potoloa ere modan jarri dute. Ez gaitezen horrekin korapila: malgutasun laboralaren sustapena dakar ezarri nahi duten kontzeptu berriak.

Ez da harritzekoa beraz, zein atxikimendu eskasa diogun herritarrok eraikitzen ari den Europar Batasunaren eredu honi. Hau ez da nahiko genukeen Europa. Gurea, gure Europa, berriro bahitu du neoliberalismoaren zezenak.



DANI GOMEZ

Director de la Fundación Manu Robles-Arangiz Institutua

EL SINDICALISMO TIENE FUTUROS SI ES DE CONFRONTACIÓN

El fenómeno de la globalización ha traído consigo un cambio importante en la escala de valores que conforman las relaciones laborales, afectando tanto a las individuales como a las colectivas, y condicionando el propio funcionamiento y estrategia de los sindicatos.

La globalización se acompaña de un lenguaje en el que abundan referencias a libertad, modernización, etc. Con él se quiere ocultar el verdadero alcance e intención de las políticas que se impulsan. La modernización, nos explican, exige renunciar a conceptos ideológicos que considerábamos inamovibles -justicia social, solidaridad, garantías mínimas-, y, en aras a la libertad, nos empujan a retroceder hacia valores de épocas anteriores, donde los derechos colectivos prácticamente no existían. Esa vuelta hacia aquellos conceptos supone retornar a las condiciones de esas épocas, renunciando a derechos laborales que estaban consolidados.

Uno de los logros históricos que se ponen en cuestión es el de la negociación colectiva. Además de la competitividad, se apela a lo heterogéneo y complejo de la realidad actual para explicar que los acuerdos colectivos no se ajustan a la misma y que es necesario impulsar la relación individual. Se nos dice que ésta es más flexible y da más libertad al individuo, cuando sabemos que, en la relación individual, la persona trabajadora se ve forzada a aceptar las condiciones que le imponga el empresario. Solo la existencia de un acuerdo colectivo le garantiza unas condiciones mínimas seguras.

Por eso se ataca la negociación colectiva, como se ataca al sindicato cuando lucha por avanzar en la mejora de las condiciones. Los trabajadores y trabajadoras son vistos solo como un gasto, necesario pero lamentable, y los sindicatos como un estorbo en la carrera por los beneficios. Una trampa para neutralizar el papel del sindicato es plantear que empresarios y trabajadores tenemos intereses compartidos, que vamos en el mismo barco. Se insiste en el mito de que primero hay que hacer crecer la tarta para luego repartir, ocultando que, al

**Garai hauetan, sindikatuaren
erronka zapalduen dauden
pertsonek behar izan duten
iragarpenak betetzea da.
Horretarako, sindikatuak
pertsonek horiek antolatzea behar
ditu, egoerari aurre egiteko gai
izan daitezten**

mismo tiempo que se crea actividad, ya se está repartiendo, bien en forma de salarios o de beneficios.

Con esa visión de intereses compartidos se nos quiere entretener con el diálogo social. Un diálogo social que solo funciona mientras y hasta donde quieran los empresarios y gobiernos. Cuando se cuestionan los derechos colectivos y la propia negociación colectiva es atacada, el diálogo social de intereses compartidos se convierte en la cobertura que legitima las políticas económicas y sociales de patronos y gobiernos. Con el cambio de ciclo económico se refuerzan las recetas de siempre, que no son otras que apelar a la responsabilidad de los sindicatos para que acepten moderación salarial y pérdida de derechos. A la vez, se persigue y criminaliza la huelga y a quienes la impulsan.

La fuerza del sindicato no está en mantener interminables reuniones o participar en innumerables foros. La fuerza del sindicato está en su capacidad de generar conflicto que obligue a la otra parte a aceptar una negociación real, en la que se dé satisfacción a las demandas que se le presentan.

Cuando se habla de que la globalización obliga a repensar el papel de los sindicatos y que éstos están en retroceso es necesario subrayar algunas ideas centrales. La llamada globalización no es sino la forma actual del capitalismo, y los valores que defiende pretenden llevarnos a condiciones laborales superadas y al desmantelamiento de las insuficientes coberturas sociales que aún existen. Frente a ello, no hay intereses compartidos entre trabajadores y empresarios, ya que el reparto de la riqueza se hace a costa de los intereses del otro, ni entre trabajadores y gobiernos, cuando éstos practican políticas de recortes sociales. El diálogo social, por muy engrasado que esté económicamente, solo busca neutralizar la acción sindical, reduciendo el papel de los sindicatos al que se asigna a las plantas de salón: adornar, pero desde una esquina, para no estorbar.

El futuro del sindicato en momentos de retroceso de derechos individuales y colectivos está en volver a las razones de ser del movimiento sindical, como es el acercarse a las necesidades y aspiraciones de las personas trabajadoras a las que representa, a quienes más sufren las discriminaciones y la explotación y organizarlas para confrontar.

Para ello, es imprescindible que el sindicato sea independiente. Una independencia que viene de la autosuficiencia económica, con una financiación basada en las cuotas de sus afiliados y afiliadas. Este sindicalismo sufrirá las consecuencias de la globalización, padecerá los ataques a los derechos colectivos, pero saldrá adelante reforzado porque, cuando la gente trabajadora está más castigada, el sindicalismo, si es de confrontación, tiene futuro.



DEIANE ARRIETA
Genero arloko arduraduna

MUTAZIOA, METAMORFOSIA ETA FAMILIA

Charles Darwinek ez zekien zer zela eta gertatzen ziren aldaketak izaki bizidunetan. Ez zekien geneen alterazioaren ondorioz ematen zirenik eraberritzeak. Baina bazekien aleatorioki norbanakoetan emandako kasualitateak, hots, mutazioak, zirela izakiaren eboluzioaren oinarri.

Gizarteak garatu eta eboluzionatzen dira, baina ez bat batean, ez eta kasualitatez ere. Borondatea da gizartea eraldatzeko nahitaezko baldintza. Eta bestela mutaziorik ez da gertatzen. Horren adibidea, Eusko Jaurlaritzak onartu berri duen Familien Sostengurako lege proiektua dugu. Kontrako zerbaiten gisara saldu nahi diguten arren, berrikuntza gabeko lege proiektua da. Orain arte indarrean egondako politikak bateratu besterik ez ditu egiten. Eta beraz, ezin esan EAEko familia babeserako politiketan mutaziorik egon denik. Arrazoia? Borondate falta ziurrenik; familia antolaketa eta zaintzarako ditugun zailtasunak begi bistakoak izanik, egoera hobetzeko ezer gutxi egiten dutelako erakunde publikoek.

Egun familia bat sortu eta behar den bezala sostengatzeko ditugun oztopoak asko dira. Hasteko, familia handitzeko nahiak ekonomia gaitasunak baldintzatzen du. Gainera, lan merkatuaren egituraketak, ordu-tegi zurrun eta ezegonkortasunak, ez du posible egiten bitzta pertsonal eta familiarra



El Proyecto de Ley de Apoyo a las familias no aporta novedades ni soluciones

uztarteza. Eta guzti hori gutxi balitz, gabezia horiek indartu egiten ditu zerbitzu sozialen azpiegitura ahulak. Familia guztien arazo dira oztopo guzti hauek eta beraz, euskal gobernuak bultzatu beharko lituzke egoera aldatzeko neurriak.

Zoritxarrez baina, azken lege proiektuarekin ez du arazoaren erroetara jo eta hori konpontzeko politikarik bildu. Batetik, esaten du “bikote bakoitzak nahi adina sema-alaba izateko baldintzak sortu eta bermatzea dela” Jaurlaritzaren ardura. Baina egoera hobetzeko proposatzen duen bidea, dirulaguntzena da. Horren harira, seme alabak izate aldera eta horien, nahiz mendeko pertsonen, zaintza familiak beregain hartzeagatik dirulaguntzak emateko sistema finkatzen du. Baina jakina da dirua ez dela nahikoa familiek aurre egin beharreko oztopoak gainditzeko. Bestetik, lege proiektuan onartzen da “kontziliatorako politika egokiena zerbitzuetan oinarritutako familien sostengurako planak direla”.

Halabaina, ez du zerbitzu publikoen sarea indartzeko konpromiso zehatzik jasotzen; ez epe labur, ez epe luzera begira. Ondorioz, 0-3 urte bitarteko haurrentzako haurtzaindegi zerbitzurik ez da bermatuko, eta bereziki larria izango da urte bat bete arteko umea zaintzeko azpiegitura falta. Mendeko pertsonen zaintza etxetik kanpo egiteko ere, plaza gabe jarraitu beharko dugu: eguneko edo gaueko zentro nahiz egoitzak eskaerara egokitzeko konpromisorik jasotzen ez duelako. Eta arazo honi planteatutako konponbidea, berriz, dirulaguntzaren bidez eginikoa da. Baina orduan ere, diruak ezin erosi eskaintzen ez diren zerbitzuetarako plazarik!

Laburbilduz, bada, Familien Sostengurako lege proiektua ez da milaka euskal familien arazoak konpontzeko tresna izango. Eta orain artean arazo izandakoak, arazo izaten jarraituko dute aurrerantzean ere. Ezin esan familien babeserako politiketan mutaziorik eman denik. Metamorfosirik eman denik ere ez. Izan ere, metamorfosia, izakien garapenean enbrioi izate-tik heldu izateko prozesuan, emandako aldaketa da.

Eta gure herrian familia babeserako politiketan aldaketa gutxi eta heldutasunik ez da ikusten oraindik. Enbrioi dira gure herriko familia politikak. Gobernutik ardura familiarak, erantzukizun pribatu gisa uler-tzen jarraitzen dutelako. Herrialde eskandinabiarretan bai, enbrioi izate-tik izaki garatu izatera pasa direla! Gure gizarteak enbrioi izateari utzi eta politika garatuen beharra du. Edota, orain arteko politika eragin gabeak mutatu eta familiei benetako babesa emango dieten politiketan bilatzeko beharra. Aldaketa da gizarteak eskatzen duena, egungo sistema desfasatua eta zaharkitua geratu delako. Konponbiderako giltza instituzio publikoek dute. Baina, agian garrantzitsuena falta zaie: aldaketa eta konponbiderako borondatea.



XABI ANZA

Formazio departamendua

LIZARRA-GARAZI: 10 URTE

Lrailaren 12an hamar urte beteko dira Lizarra-Garaziko adierazpena egin zenetik. Bertan, Euskal Herriko hainbat mugimendu sozial eta eragile politiko eta sindikalek babes zabala eman zioten urte-tan banaturik ibili ziren bi familia abertzale nagusien aitorturiko elkar-ulertzeko intentzio zintzoari. Egun batzuk beranduago, hilaren 16an, ETAk su-eten mugagabe aldarrikatu zuen, garai berri bati hasiera emateko ekarpen behar-beharrezkoa zelarik.

Adierazpenak ez zuen beste munduko gauzarik esaten: gatazka historikoaren muina politikoa dela; elkarrizketa eta negoziazioaren alde egiten du, bakeari heltzeko; eta euskal herritarrongan jartzen du hitza eta erabakia. Baina, adierazpenaz gain, elkar ulertze nahi hori eta su-etena nahikoak izan ziren euskal gizartean berebiziko itxaropena pizteko. 15 hilabete nahikoak izan ziren inizatiba oso interesgarriak martxan jartzeko, ordura arte pentsatu ezi-nezkoak zirenak gainera: Batera (presoen eskubideen aldeko plataforma), Udalbiltza (udal hautetsien instituzio nazionala), Lizarra-Txikiak (herriz herri, auzoz auzo sorturiko militanten taldeak), hala nola euskararen aldeko eki-

menak... Ez geunden ametsetan, baina amesteko denbora bat izan zen.

Egia da zailtasunak ez zirela txikiak izan: indar espainolen itxikeria, beharrekoak ziren baina gauzatzen ez ziren eragile-estrategien aldaketak, boluntarismo karga handiak, hurrengo faserako helburu konkretuen definiziorako zailtasunak... Dena den, ELAren ustetan, eta garai hartan esan zuen bezala, porrotaren arrazoi nagusia beste leku batean bilatu behar da: erakunde armatu eta klandestino baten ikuspegia eta beharrak ez duela zertan bat egin behar gizarte multzo batek dituen errealtatearen azterketarekin edota bere erritmoekin, alegia. Eragile zibilak soberano izan behar dira bere konpromiso eta agenda politikoak kudeatzeko, bide armatua berreskuratuko ote den mehatxuaren pean sentitu gabe.

Lizarra-Garaziko erreferentziaren gaurkotasuna.

Miseriak miseria, Lizarra-Garazi ez zen izan, ordea, espainolistek esan bezala, akordio baztertzailerik bat; benetako transbertsalitatea errespetuan baitatza, eta euskal herritarron hitzaren errespetuak bakarrik bihurtuko du posible edozein proiektu politiko (baita espainola ere), beti ere jendearen babesa lortzen baldin badu. Horrela adierazpenak jasotzen duen "Euskal Herriak du hitza eta erabakia" esaldia da indar abertzaleok konpartitu dezakegun gutxieneko zorua.

Hamar urte betetzen diren honetan, Lizarra-Garaziko erreferentziari erabat gaurkoa deritzogu: bera baita berriz ere abertzale guztion elkarlana, itxaropena, militantismoa piztu dezakeen erreferentzia komun bakarra.

Azken urteotako bi korrante politiko abertzale nagusien proposamenak, biak erabakitzeko eskubidearen errespetuan oinarriturik eta polarizaturik, ez dute balio izan lan amankomun bat abiarazteko: konpetenziaren eta bazterketaren logikak nagusitu dira, estatuarekin batak zein besteak akordioa bilatzen zuelarik. Oso zatituta eta oso ahul ikusi gaituzte.

Bada garaia erronkari eusteko.

Autodeterminazioaren aldeko proposamenak landu, jende xumearen parte-hartze politikoa berrindartu, euskararen aldeko jarduna doktrina eta praxi abertzalearen lehentasun bihurtu, giza-eskubideen, demokraziaren alde eta erreprezioaren aurkako dinamikak areagotu... horiek eta beste asko dira Lizarra-Garaziko erreferentziak ireki ditzakeen bideak. Bada garaia erronkari eusteko.



La base soberanista está en Lizarra-Garazi. Nunca ha estado más ilusionada; nunca ha estado más motivada ni más comprometida... ¿Por qué se ha cambiado de estrategia?



GUTUNAK CARTAS

Esta sección pretende ser una tribuna abierta a las opiniones de nuestros/as afiliados y afiliadas sobre la actualidad económica, social y laboral. Aquellos/as que lo deseen deben enviar sus cartas a la siguiente dirección: Landeia, Cartas de los lectores. Barrainkua 13, 48009 Bilbao.

Belaunaldi berriak pobretuago

80 hamarkadako industriaren gainbehera eta 90 hamarkada-hasieraren krisia igaro ostean, EAEko gazteen langabezia-tasa ikaragarria zen: %55. Azken 15 urteetan, ordea, inoiz ikusi ez den bezalako hazkunde ekonomikoa eta enplegu-gehikuntza izan dugu.

Gaur egun, gazteen langabezia-tasa %15,2koa da. 1993. urtean, 600.000 soldatapeko langile ziren Euskadin. Gaur egun, milioi bat dira. Agintariak pozik daude datu horiekin. Baina datu pozgarri horien atzean beste datu ilunago batzuk daude. Esate baterako, sortu den enplegu guztia enplegu prekarioa da.

Eta ez hori bakarrik. Sortzen den aberastasun osotik (BPG) soldatei dagokien zatia gero eta txikiagoa da (1993an BPGaren %54,7, eta 2006an %48,3). Hau da, hazkunde-garaian bizi arren, euskal langileak pobretu dira orokorrean, eta gazteen egoerari begiratuz gero, pobretze joera inoiz ez bezalakoa izan da.

Egia da langabezia-tasa nabarmen gutxitu dela. Baina egia hori lau aldetatik zehaztu behar da jendea nahas ez dadin.

Batetik, prekaritatea oso bereziki atxiki zaie gazteei. 16 eta 24 urte bitarteko gazteek Euskadin 860 euroko soldata garbia jasotzen dute batez bestez. Hau da, etxebizitza bat eskuratzeko behar dena. Gazte gehienak aldi baterako kontratuen menpean daude.

Bestalde, hezkuntza-zikloa luzatu denez, estatistikak ez dira hainbeste puztu. Esan dezagun, bide batez, estatistika horien edukiak eta prestatze-irizpideak aldatu izan dira, tasak jaitsi arazteko.

Bestalde, bizimodua atera ezinik, gurasoen etxean geratu behar direnez, ez da hainbeste ikusten, ez kanpotik ez barrutik, gazteen benetako pobrezia-egoera.

Azkenik, *low cost* kulturaren barruan, soldata ziztrinak izan arren, kostu txikiko gauza asko eros daiteke; eta horrela, pobrezia ez da hain nabarmena.

Arestian krisiaren mamuak mehatxu egin digu berriro. Eta egia esateko, hazkundera moteltzea baino ez da gertatu. Hala ere, mehatxu horretaz baliatuko dira erreza neoliberala berriz aldarrikatzeko: soldata txikiagoak, kontratu prekarioagoak, gastu publiko gutxiago, langabeentzako prestazioak murriztu eta abar.

Neurri horiekin lehenagotik dugun krisia areagotuko da, ekonomiaren hazkundera moteltzen hasi baino lehenagokoa: gizarte-krisia eta belaunaldi berrien krisia. Egoera horri buelta eman behar diogu.

X.A. Ataun

Adiorik ez, Paio


Jose Maria Bergara Kortadi: abuztu honetan zendu da gure artean hain gertukoa zen Paio. Klandestinitatearen ondoren sindikatua berreratzen lan eskerga burutu zuen Paio.

Urola-Kosta eskualdeko arduraduna izan zen eta makina urtetan Kimika, Papera eta

Komunikazio federazioaren idazkari nagusia (Igeko, Ikegaf). Duela urte batzu bere gaixoaldia zela eta sindikatu bere lanari utzi zion, nahiz eta beti gertu egon ohi den. Bihoakie familiari eta inguruko ei gure doluminak eta elkartasuna.



ZER BERRI ACTUALIDAD



› **JUAN ANTONIO KORTA**

KONFEDERAZIOA

Laborantza Ganbararen aldeko mobilizazioekin bat egiten du ELAK

ELAK dei egiten du Euskal Herriko Laborantza Ganbarako kideen epai-keta salatzeko hilaren 18an Baionan egingo den elkarreteratzean parte hartzera. ELAren iritziz, onartezinak dira gobernu frantsesak erakunde honen aurka hartu dituen neurriak. ELAK bere elkartasuna adierazi nahi die Laborantza Ganbarako kide guztiei eta, bereziki, Mixel

Berhocoirigoin, Laborantzako Lehendakariari, estatu frantsesaren eraso berri honen aurrean.

Orioko atentatua gaitzetsi du ELAK

Acciona eta Fonorte enpresetako ondasunen aurka ETAK uztailaren 28an eginiko atentatua gaitzetsi zuen ELAK. Enpresa hauek A8 autobidearen hirugarren karrilaren lanetan aritzeaz gain Abiadura Handiko Trenaren eraikuntzan parte hartzen dute. ELAren ustetan, AHTa eraikitzearen aurkako jarrera zilegia bada, horrek ez du justifikatzen, inolaz ere, bortxakeriaren erabilera eta ez du horren beharrik.

Uriak eta Oleagak jarritako tortura salaketa artxibaketaren kontra

Iñaki Uriak eta Xabier Oleagak 2003an jasandako torturen salaketa artxibatu egin ditu Madrilgo Instrukzio Auzitegiak. Berriz ere



AHTaren aurka eta tren sozialaren aldeko mobilizazioa Tolosan

ELAK tren sozialaren aldeko eta Abiadura Handiko Trenaren aurkako jarrera berretsi zuen uztailaren 4an Tolosan egindako ekitaldian. Sindikatuko 800 militante hartu zuen parte ekitaldi ezberdinetan. Mikel Novalek eta Janire Dominguezek ELAK gaiaren inguruan landu eta prestatu dituen informazioak aurkeztu zituzten Leidor antzokian. ELAko idazkari nagusi Jose Elorrietak ere hitz egin zuen. Hitzaldien ostean manifestazio batek Tolosako kale nagusiak zeharkatu zituen.

Elorrietak Euskal Herrian garraioaren egoera oso txarra dela nabarmendu zuen. "Errepideak automobilerik eta kamioierik beterik daude; herritar askok ez dute eguneroko mugikortasun-beharrei erantzuten dien garraio publiko eraginkorrik. Argi dago egoera honen aurrean AHTa ez dela konponbidea. Ez ditu zuzenduko pertsonen eta merkantzien mugikortasun-arazoak. Hiriburuak lotu besterik ez du egingo, gainerako herriak eta eskualdeak bakartuz eta komunikatzeko aukerarik gabe utzirik; eguneroko joan-etorrien %99rako ez da baliagarria izango".

argi geratzen da estatuko botereek zenbaterainoko inpunitatez jokatu duten. Gertatu dena espero izatekoa zen, Donostiako instrukzio Auzitegiak salaketa aztertzeke funtsezko arrazoiak

bazeudela zioen erabakia errekurritu eta ondorioz auzia beste epaile batzuren esku geratu zenetik. Salaketa sinesgarria, txosten medikuak eta lekukoren baten adierazpenak, denak baz-

tertu dituzte Madrilén, eta kasua itxiztat eman dute.

ELA alerta sobre la degradación de La Ribera

Un centenar de militantes de ELA participaron el 26 de junio en la primera jornada medioambiental organizada por nuestro sindicato en La Ribera para denunciar la política agresiva contra el medioambiente que se está haciendo en esta zona de Navarra. La jornada consistió en un coloquio-debate en el que tomaron parte responsables sindicales y representante de Ecologistas en Acción y finalizó con una concentración frente a la sede de Bardenas de Tudela en la que se exigió el cierre del polígono de tiro.

Askatasun sindikala kolokan

Manu Robles-Arangiz Fundazioa Institutuak Askatasun sindikala kolokan ikastaroa antolatu zuen ekainaren 25 eta 26an, UNED-Bergararekin elkarlanean. Bi egunez izen handiko adituek Europan askatasun sindikalak azkenaldian jaso dituen eraso larriak aztertu zituzten. Lehen egunean bi hitzaldi nagusi izan ziren, Europar Garraio Federazioko idazkari nagusia den Eduardo Chagas eta Administrazio Zuzenbideko katedradun Iñaki Lasagabasterren eskutik. Hurrengo egunean, Sam Hägglund, Europar Eraikuntza Federazioko idazkari nagusia, eta Adolfo Muñoz, ELAko idazkari nagusiaren albokoa, izan ziren hizlariak.

Sanz recupera viejas recetas

Según ELA, las medidas acordadas por el Gobierno de Navarra y el PSN para la reactivación económica solo benefician a la patronal. Las propuestas recogidas en el Plan Navarra 2012 y la reducción del gasto público van en la dirección contraria a la reactivación de la economía. Además, los responsables del Gobierno foral están apelando una y otra vez a la moderación salarial como instrumento para hacer frente a la nueva fase económica.



FEDERAZIOAK

Más paros en la residencia Ariznavarra

Las trabajadoras de la Residencia Ariznavarra, de Gasteiz, que desde el pasado 18 de febrero protagonizan dos horas y media de paro en cada turno, tienen previsto incrementar las horas de paro tras la última e insuficiente oferta de la dirección de la empresa, MAFRE-Quavita, adjudataria de la gestión de la gestión.

Mientras que la Diputación de Alava ha incrementado en un 40% la subvención por plaza y día a la empresa gestora, ésta ha planteado un incremento salarial del IPC a las trabajadoras, lo que ha sido recibido como una provocación. Además, la dirección de la empresa aplicó en la nómina del mes de julio los conceptos retributivos recogidos en el convenio estatal, abriendo las puertas a la doble escala salarial para futuras contrataciones.

Un 41% de subida en las subcontratas de limpiezas de Metro-Bilbao

Tras 14 días de huelga, el comité de empresa de Metro-Bilbao alcanzó un acuerdo con las empresas UNI 2 y Garbaldi, subcontratas del servicio de limpieza de Metro-Bilbao, lo que, tras el refrendo de los trabajadores/as, permitió la desconvocatoria de los paros.

Con este acuerdo se logra la equiparación en un 90% con los sueldos que tiene el personal de limpieza propio de Metro-Bilbao. El aumento salarial se acerca a los 6.000 euros, con lo que los trabajadores y trabajadoras de las subcontratas pasarán a cobrar 20.350 euros en el 2011. En concreto, en el 2009, se empezará a cobrar un plus cotizable y consolidable de 225 euros mensuales, mientras que el 2010 este plus pasará a ser de 250 euros, y en el 2011 será de 285. Además, se han sentado las bases para la negociación de un convenio propio en los próximos años.

Firmado el convenio de limpieza viaria en Gipuzkoa

Los sindicatos ELA, CCOO y UGT suscribieron el 1 de julio el convenio de limpieza viaria y recogida de basuras de Gipuzkoa, que afecta a cerca de 1.200 trabajadores y trabajadoras. ELA, que cuenta con mayoría absoluta en el sector, valora positivamente este acuerdo, ya que permite en un plazo de cuatro años la implantación progresiva de la jornada de lunes a viernes, mientras que los fines de semana y los festivos serán cubiertos por una nueva plantilla.

El convenio recoge un incremento del IPC más 1,2 puntos en 2008 y de un punto para los restantes tres años, así como un incremento del 25% en el plus de nocturnidad y la inclusión del

Riesgo de accidentes en la construcción de "El Corte Inglés" de Eibar

ELA presentó el 8 de julio una denuncia ante la Inspección de Trabajo y Seguridad Social de Gipuzkoa contra las empresas Ibérica de Servicios y Obras y Construcciones Amenabar y las subcontratas que participan en la construcción del edificio que albergará el nuevo centro comercial de "El Corte Inglés" de Eibar.

Según se recoge en el informe remitido por este sindicato, "se ha podido comprobar que en dicha obra se está trabajando a un ritmo muy elevado, con el riesgo que ello conlleva de tener un accidente". Por otra parte, a los trabajadores de dichas empresas no se les ha aplicado el vigente convenio de la construcción y obras públicas de Gipuzkoa, por lo que las retribuciones y cotizaciones son muy inferiores a las que realmente deberían de ser.

A ello habría que añadir que las empresas denunciadas han incumplido la obligación de ingresar en la EPSV Geroa las aportaciones que establece el convenio.

ELA no firma el convenio de la madera en Navarra

La patronal navarra ha modificado a la baja los términos del preacuerdo alcanzado en el convenio de Madera con los sindicatos en la mesa negociadora, por lo que ELA no firmó el convenio colectivo. Entre otros aspectos, la patronal retiró en el texto final las referencias al IPC histórico y la aplicación del contrato de relevo.



ELA retomará la negociación del próximo convenio con el objetivo de seguir recortando las diferen-

cias salariales y de jornada en relación al resto de los territorios de Euskadi.

Un 25% de subida en el textil de Araba

Tras cuatro meses de negociación, los sindicatos ELA, UGT y CCOO firmaron el 7 de julio con la patronal del sector del textil el convenio colectivo para los años 2008 y 2009. ELA, con un 75% de representación, valoró positivamente un acuerdo que recoge un incremento equivalente al del IPC+3 puntos para cada año de vigencia. Además, se acordó el cobro de un plus convenio de 30 euros mensuales en el 2008, y de 50 para el 2009, estos últimos, consolidables. Todo ello supone un incremento del salario de 223 euros al mes, cerca del 25% en dos años.

35 horas en la Mancomunidad de la Sakana

La asamblea de trabajadores de la recogida de basura en la mancomunidad de la Sakana acordó por unanimidad apoyar el acuerdo alcanzado entre ELA y los representantes de la Mancomunidad, poniendo fin a la huelga que mantenían. El convenio colectivo, que tendrá una vigencia de tres años, recoge un incremento salarial del IPC+1,25% para el 2008, del IPC+1,50 para el 2009 y del IPC+1,75 para el 2010, así como la consolidación de la jornada de 35 horas semanales.

Incrementos del 5,2% en la hostelería de Bizkaia

El acuerdo suscrito el 28 de julio recoge para este año un incremento salarial del 5,2% y un descanso garantizado de seis horas para todos los trabajadores y trabajadoras, con lo que la jornada anual se sitúa en 1.754 horas.

Haurreskoletako hitzarmenean aurrerapausoak

ELA, LAB eta STEE-EILAS sindikatuek 2007-2009 epealdirako Haurreskoletako hitzarmena adostu zuten uztailaren 3an. Hitzarmenari esker, 2008an 500 langileentzako egonkortasun prozesu bati ekingo zaio, hain zuzen prekarietate handia jasanez sektorea egituratu duten beharginentzat. Halaber, 2009rako beste EEP deialdi bat izango da. Akordioak iraungo duen hiru urteetan lanaldia 21 ordu murriztuko da eta soldatak %4,75 2007an eta %4,22 2008an igoko dira.

Udaletxetako langileentzako akordioa sinatu da

Udalhitz, udaletxetako langileen lan baldintzak jasotzen dituen lan hitzarmena sinatu zuten ELA eta CCOO sindikatuek uztailaren 7an. Euskal Autonomi Erkidegoko udaletxeetan dauden 22.000 langileen soldata eta lan baldintzak jasotzen ditu. Akordio honek hiru urtetako iraupena izango du eta Kontsumorako Prezioen Indizea gehi puntu bateko igoera jasotzen du 2008, 2009 eta 2010. urteetarako. Elkarkidetzarako gehigarria %0,50koa izango da aurten. Bestalde, udaletxetako arduradunek azpikontratekin sinatzen diren akordioen berri ematera behartzen ditu akordioak eta bazter-tuen bergizarteratzeko egiten ohi diren kontratuak arautu eta mugatzeko konpromuezua hartzen da.

Freno a las privatizaciones en el convenio de la Diputación de Bizkaia

El 3 de julio, ELA, CCOO, UGT y CSIF firmaron el convenio de la Diputación de Bizkaia. El acuerdo, que tiene cuatro años de vigencia, recoge subidas salariales del IPC+1,5% para 2008, del IPC+1% para 2009-2010, y del IPC+1,1% para el 2011.

En cuanto a las privatizaciones en el IFAS, se ha logrado frenarlas con una OPE que parte de un mínimo de plazas a negociar de 27 camareras/limpiadoras, entre otras categorías profesionales. Por otra parte, se ha logrado la equiparación de las subcontratas de limpieza al nivel 5 de UdalHitz. Esto supone un incremento de casi 6.000 euros anuales, que se logra de manera progresiva durante la vigencia del acuerdo.

Las auxiliares domiciliarias de Trápaga tendrán jornada completa

A raíz de una denuncia interpuesta por ELA, el Ayuntamiento de Trápaga deberá ampliar la jornada de las 8 auxiliares domiciliarias que dependen directamente del consistorio a tiempo completo y abonar los salarios desde el 1 de enero de 2008.

Acuerdo en la Residencia Faustino Orbeago

Tras seis meses de huelga, el 24 de julio el comité de empresa de la Residencia Faustino Orbeago, de Zumarraga, alcanzó un acuerdo con los responsables del Ayuntamiento. El acuerdo recoge la recolocación de las trabajadoras, junto a las indemnizaciones que deberán percibir como consecuencia de las diferencias salariales que van a tener en el nuevo centro de trabajo.

El acuerdo ha sido valorado positivamente por el comité de empresa que ha obligado al Ayuntamiento de Zumarraga a recolocar a las trabajadoras en la nueva residencia, aunque han criticado la privatización del servicio.

Acuerdo en Aiala vidrio

El comité de empresa de Aiala vidrio, compuesto mayoritariamente por miembros de ELA, ha firmado el convenio de empresa de Aiala Vidrio, antigua planta de producción de Vidrala, que contempla para cada uno de los tres años de vigencia (2008, 2009 y 2010) un incremento salarial del IPC+1,3% y una reducción de jornada de 8 horas.

Además, recoge la conversión en contratos indefinidos de más



Readmitido el delegado sindical de ELA despedido en TCSA

La empresa Transportes Colectivos de Bilbao y Bizkaia despidió el mes de julio a uno de los delegados sindicales que ELA tiene en la empresa. Tras las movilizaciones protagonizadas por ELA ante la sede de la empresa el 24 de julio fue readmitido por la dirección de la empresa.

de 30 eventuales, incrementos lineales de algunos pluses y la mejora de los porcentajes por antigüedad.

ELA denuncia la firma del convenio de Metro Bilbao

ELA, sindicato mayoritario en Metro Bilbao, denunciará en los juzgados la firma del convenio realizada por la dirección de la empresa y los sindicatos CCOO, UGT, LAB y ESK. Este acuerdo ha sido firmado fuera de la mesa de negociación.

ELA defiende un convenio propio para Sidenor en Basauri

ELA y LAB denunciaron la firma por parte de los sindicatos CCOO y UGT del Acuerdo Marco de Sidenor, que fue rechazado previamente por la asamblea de trabajadores y exigieron negociar un convenio propio.

Pobre acuerdo en el metal de Bizkaia

ELA considera muy pobre el acuerdo alcanzado por UGT y CCOO y la patronal el 10 de julio en la mesa negociadora del convenio del metal de Bizkaia. Para ELA, el incremento salarial es

insuficiente y no tiene en cuenta los históricos beneficios empresariales de los últimos años. Además, no contempla ninguna reducción de jornada.

Akordioa Zumarragako TTT Goikon

Hilabeteko grebaren ostean akordio batetara iritsi ziren uztailaren 18an TTT Goikoren lan batzordea eta zuzendaritza. Hiru urteko iraupena izango duen hitzarmenak (2008, 2009 eta 2010) denboraldi honetarako 7.000 eurotako soldata igoera eta aldi-baterako kontratuak urte batera mugatzea jasotzen ditu.

Huelga de los jardineros del Ayuntamiento de Basauri

El personal de la contrata municipal de jardinería de Basauri, pertenecientes a la empresa Urazca, llevan a cabo paros parciales desde hace cuatro meses, en defensa del convenio colectivo. Ante la negativa de la dirección de la empresa a mejorar los salarios, que ascienden a 900 euros mensuales, han decidido ampliar la huelga a toda la jornada, a partir del mes de setiembre.

Adolfo Muñoz, Txiki, candidato a la secretaría general

EL COMITÉ NACIONAL HA PROPUESTO A **ADOLFO MUÑOZ, TXIKI**, COMO CANDIDATO A SECRETARIO GENERAL DE ELA, EN SUSTITUCIÓN DE JOSE ELORRIETA, QUE ABANDONA EL CARGO TRAS 20 AÑOS EN LA MÁXIMA DIRECCIÓN DEL SINDICATO. POR OTRA PARTE, SE PROPONE QUE AMAIA MUÑOA, HASTA AHORA TESORERA CONFEDERAL, PASE A SER, TAMBIÉN, SECRETARIA GENERAL ADJUNTA

corto periodo de tiempo abandonen la ejecutiva, de manera gradual y acompañada, 10 de sus 12 miembros, en concreto, la generación del 76, dando tiempo a la formación de nuevos cuadros, que han ido ocupando esos puestos de responsabilidad.



Iraila eta urria bitartean, sindikatuko 2000tik gora kidek parte hartuko dute ponentziaren inguruko prestakuntza-ikastaro ugarietan, beti ere jatorrizko testua zuzenketen bidez hobetzeko asmoz

Elorrieta afirmó, por otra parte, que Adolfo Muñoz, candidato a sustituirle como secretario general, “pertenece, también, en sentido estricto, a la generación del 76, porque aunque solo tenía 17 años estuvo en el Congreso de Euba”. “Se trata de una persona -destacó- que ha estado toda su vida vinculada al sindicato. Primero, como militante del metal en su empresa, y desde el año 89, ya liberado, asumiendo distintas responsabilidades de dirección en el sindicato. En un primer momento, en la Federación de Servicios Públicos; luego, en la comarcal de Gasteiz; más tarde, como secretario general del Metal, y, posteriormente, como responsable de negociación colectiva en la ejecutiva; desde hace un año es secretario general adjunto”. “Se trata de una persona con una gran trayectoria y experiencia; un gran candidato, en definitiva”, rubricó.

La ponencia. Antes de final de mes está previsto que todos los congresistas reciban en sus casas la ponencia que marcará las líneas estratégicas del sindicato durante los próximos cuatro años y que deberá ser objeto de debate y discusión para su aprobación definitiva en el Congreso.

› N.I.

Adolfo Muñoz ha destacado que la lista que se propone conforma un grupo cohesionado y experimentado. “La mitad de sus miembros llevan más de 7 años en los máximos niveles de responsabilidad, y 3, más de 4”. “La edad media -continuó- es de 41 años, y hay tres personas menores de 35 años”. Muñoz destacó, también, que se trata de un grupo compensado, con un clima de trabajo óptimo y comprometido e ilusionado para llevar adelante su responsabilidad.

Culminado el relevo generacional. José Elorrieta, por su parte, ha destacado que se culmina un proceso de renovación generacional y de género que dio comienzo en el año 99 y que ha supuesto que en un relativo

Kongresuan, pertsonak aldatuko badira ere, estrategia-ildo berari jarraituko zaio

El comité Nacional aprobó el 6 de junio la lista de personas y funciones del comité ejecutivo

que propondrá para su ratificación a los 736 delegados y delegadas que tomarán parte en XII Congreso de ELA, que tendrá lugar los días 26 y 27 de noviembre, en Bilbao, bajo el lema “Langileekin”.

La única novedad en cuanto a personas es la propuesta de incorporación a la ejecutiva de Xabier Anza como responsable de Formación Sindical. Xabier Anza tiene una dilatada experiencia profesional en el departamento de Formación de ELA, y con anterioridad fue responsable confederal de jóvenes.

Por lo que respecta a la novedades en cuanto a funciones, se propone que Mitxel Lakuntza asuma el Area de Inmigración.

Tal como explicó José Elorrieta, está previsto que entre septiembre y octubre más de 2.000 cuadros del sindicato participen en los numerosos cursos de formación organizados en

torno a esta ponencia, con el objeto de que se presenten enmiendas que enriquezcan el texto original.

Por lo que respecta al contenido de la ponencia, Adolfo Muñoz afirmó que

“refleja nuestro trabajo actual, por lo que no hay grandes novedades”. “En este congreso hay cambio de personas pero no de línea estratégica”, adelantó.

“Langileekin”. “Langileekin” izan da ELAren XII Kongresurako hautatu den izenburua. Komunikazio arduradun Patxi Agirrezabalak azaldu duenez, izenburu horrekin, “batetik, sindikatuak langileekin duen konpromisoa azpimarratu nahi da: haien esanetara gaude; eta bestetik, langile-jendea bultzatu nahi dugu lan-baldintzak jaso ditzaten”.

Kongresua. ELAren XII. kongresuan ohiko gaiak aztertuko dira. Lehenengo, Batzorde Eragilearen kudeaketa-txostena onetsiko da, hala balegokio. Horren bidez egindako lanaren berri ematen da jakitera, eta baita harturiko konpromisoen betetze-maila ere. Bigarren, ordezkariak aurkezturiko ponentziei egin zaizkien zuzenketak eztabaidatuko dira. Eta hirugarren, Batzorde Eragile berria hautatuko da. Gainera, hartu behar diren erabakiak azaldu eta onetsiko dira, Konfederazio-estatutuak nazioarteko sindikalismoaren egoera berrira egokituko dira, eta ELAren antolakundeek parte hartuko dute, hala nola, gonbidatuek eta atzerriatik etorritako ordezkariak ere.

Emakume eta gazte gehiago. ELAren XII. kongresuan 736 ordezkari hartuko dute parte, horietatik 700ek lanbide eta eskualde-federazioen alde-tik, eta gainerako 36k, Nazio Batzordeko kide diren aldetik.

736 militante horietatik, 515 (%69,97) gizonezkoak dira, eta 221 emakumezkoak (%30,03). Amaia Muñoa diruzainak azpimarratu duenez, aurreko kongresuan baino emakume gehiago dago, baina ez bakarrik zenbaki orokorretan, sindikatuaren maila guztietara iritsi baitira.

Bestalde, batzarkideen batez besteko adina 41,31 urtekoa da, aurreko kongresuko baino zertxobait baxuagoa. Hor, sindikatua zaharberritzen ari dela argiro ikusten da.

